

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

2026ko uztailak 10 · 1403 zenbakia

# UDA GIROKO DOINUAK

## MERKEALDIA

betaurreko monofokala

**MÓ 77€**

betaurreko progresiboa

**MÓ 179€**



## MULTIÓPTICAS

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2.  
EIBAR



hitzordua  
eskatu



[www.multiopticas.com](http://www.multiopticas.com)    R.P.S. 93/25



Zure **enpresa-idea**  
**garatzeko** laguntza-  
programa.



Izena emateko epea uztailaren 20ra arte irekita



EIBARKO EKINTZAILETZA PROGRAMA



EIBAR  
Udala | Ayuntamiento



Debegesa  
Debagoieneko Garapen Agentzia

# AMAÑAKO JAIAK 2026



Eskerrik asko Eibar



# Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



[www.etakitto.eu](http://www.etakitto.eu)



Xabier Oruesagastik bultzatutako Eibarsax ekimenak ekarrita, munduko hainbat tokitatik etorritako saxofoi-joleak jaso ditugu aste honetan Eibarren. Ikasleek klaseak jaso dituzte eta guk, publiko orokorrak, euren musikaz gozatzeko aukera izan dugu. Gaur eta bihar emango dituzte azken saioak Azitainen eta Untzagan.

**eta kitto!**  
eusgara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruene Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

#### ADMINISTRAZIOA

Naiara Esnaola

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINU ARLOA

Iruene Jaio

#### JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Ekhi Belar

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

## Eskutitzak



### Eibar euskararen alde???

Ekainaren 19xan gure herrixan elkarretaratze bat egon zan euskaldunon hizkuntza eskubidien alde. Agian, ordua egokixena ez zan izan, baiña bueno, Untzaga inguruko terrazak edarto beteta zeguazen. Baina Untzaga erdixa? Eta udaletik? Zinegotzi gitxi batzuk ikusi nittuan, langillietatik iñor ez dago euskeraren alde? Eta agintian dagozenak? Alkate jauna, argazki batzuetan gustora urtetzen dozu, ba.

Oker ez banago udalak euskeraren aldeko hitzarmen bat firmauta daka. Firmia bai, eta ekimenak?

E. Z.

## Hortik esanak



Egun batzuk egin ditut zain ea manifestaziorik egiten den, edo ea epaileren batek fisikako azterketa batezbestekotik kanpo uzteko agintzen duen edo... ez da ezer gertatu.

EHUK esan du zero gehiago egon direla fisikan euskararen baino. Inori ez zaio arraro egin, inork ez du esan fisikako zuzentzaileek etorkizuna izorratu diotenik, inork ez du esan bere fisikako maila ez dela hain ona baina aprobateko bestea baietz... isiltasuna zabaldu da. Orduan, urdaila hasi zait oihuka. Buruak hoztuko ez dizkidan pentsamenduak gailendu zaizkit erraietan. Berriz ere jarri nahi izan dute dianaren erdian euskara, eta berdin izan die horretarako noren gaintetik pasatu behar duten. Inor ez da kezkatu aztertzaileek pasatuko zituzten aste gogorrez, bere burua galdera ikur handi baten azpian ikusteak eragingo zien antsietateaz... desautorizatu dira eta kito. Ez dute zalantza jarri A ereduak leku askotan eskaintzen duen euskara maila negargarria. Ez ditu kezkatzen A ereduan jasotzen duten euskara maila D ereduan jasotzen dugun gaztelania mailatik milaka kilometrora egoteak. Total, euskara baino ez da. Zertarako behar dute, bada? Askotan pentsatzen dut zenbait ikasketa prozesutan barre egiten zaiola euskarari, eta hori egin dezaketela badakitelako txilibitu bana hartu eta behar den atarian zarata ateratzen badute epaileak alde jarriko zaizkiela.

Onintza Enbeita (BERRIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**POZ.** → Alaitasuna. “Pentsaizu hango poza, barri hori jakitziatz bat”.

**POZAK EGON.** → Pozik egon. “Pozak nago etorri deiñerako”.

**POZAN POZAK.** → Oso pozik. “Pozan pozak zoratu biharrian zan, libre ikusirik bere burua”.



Idurre Iriondo

**Farmaziak**

- BARIXAKUA 10**
- EGUNEZ | Zulueta (San Agustin 5)
- ZAPATUA 11**
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 12**
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ASTELEHENA 13**
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- MARTITZENA 14**
- EGUNEZ | Azkue (J. Etxebarria, 4)
- EGUAZTENA 15**
- EGUNEZ | Barandela (Ziriako Agirre, 4)
- EGUENA 16**
- EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- BARIXAKUA 17**
- EGUNEZ | Azkue (J. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,  
Elortza (Juan Gisasola, 18)

**Telefono jakingarriak**

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

**Hildakoak**

- Julio Castaño Vizcaino. 67 urte. 2026-06-27.
- Jose Martin Erkiaga Berasaluze. 2026-06-29.
- Angel Berasaluze Rodriguez. 83 urte. 2026-06-30.
- Antonia Lopez Laguna. 88 urte. 2026-07-02.
- Antonio Gil Machado. 68 urte. 2026-07-02.
- Jon Joseba Martinez de Lejarza De la Hera. 92 urte. 2026-07-02.
- Madalen Iturbe Apraiz. 92 urte. 2026-07-05.
- Maria Rodicio Quintas. 83 urte. 2026-07-05.
- Javier Villanueva Rodrigo. 93 urte. 2026-07-06.
- Patxi Alberdi Aizpuru. 85 urte. 2026-07-06.



Azken hilabeteotan burutu duten sinadura-kanpainaren berri eman zuten END plataformako kideek, eta irailean Eibarko Udalbatzarrean eztabaidatzeko mozioa aurkeztuko du plataformak. SILBIA HERNANDEZ

## 3.040 herritarrek babestu dute udal harrera-sistema martxan ipintzeko eskaera

Kale egoeran daudenentzat irtenbide duina eskatzeko helburua duen END plataformak prentsaurrekoa egin zuen ekainaren amaieran, azken hilabeteetan egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri emateko, eta Eibarko Udalbatzarrean aurkeztuko duten mozioaren nondik norakoak azaltzeko.

SILBIA HERNANDEZ

END plataformak jakinarazi duenez, orain arte 3.040 sinadura jaso ditu ekimenak, eta herritarren atxikimendua handitzen ari da. Ekimena nondik datorren gogora ekarrita hasi zuten agerraldia: “END plataforma Karmeldarren neguko dispositiboa 2024ko apirilaren erdialdean itxi ondoren sortu zen eta, harrezkero, herritarrak sentibilizatzeko, etxegabetasunaren egoera aztertzeke eta irtenbide egonkor eta iraunkorrak sustatze-

ko lan egin dugu. Besteak beste, sinadurak biltzeko kanpaina egin dugu, eta 3.040 babes lortu ditugu Eibarren. Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, sinatu duten guztiei, bilketa-mahaietan parte hartu dutenei eta, azken batean, era batera edo bestera babeska eman duten guztiei”.

Azpimarratu zutenez, ekimen hau ez da Eibarrera mugatzen: “Gure asmoa proposamen hau Debabarrena osora zabaltzea da, baita Ermura ere, izan ere, gure ustez,

udal guztiek hartu behar dituzte euren gain arlo honetan dagozkien erantzukizunak, banaka edo eskualdeko lankidetzaren formularen bidez”.

### Aterpetxe hutsetik haratago doan harrera-sistema integrala

Plataformaren proposamena ideia simple batetik abiatzen dela aipatu zuten: “Inork ez luke arretarik gabe geratu behar kalean egoteagatik. Horregatik, udal harrera-sistema proposatzen dugu, funtsezko hiru elementuz osatua. Lehenik eta behin, berehalako harrera-baliabide bat, larrialdi-egoerei erantzuteko, lehen balorazioa egiteko eta pertsona bakoitza baliabide egokienera bideratzeko. Bigarrenik, eguneko zentro bat, jarraipena, laguntza eta esku-hartze soziala egin ahal izateko. Eta, hirugarrenik, egoitza-baliabideak, hala nola pisuak edo pentsioak, gizarteratze-prozesuak eta autonomia pertsonala bultzatzeko”.

### Alderdi politiko guztiekin berba egiteko prest, mozioa hobetzeko

Plataformak aurkeztuko duen mozioari dagokionez, udal talde guztiekin hitz egiteko prest daudela berretsi zuten, eta irailean arteko epea ezarri dute horretarako: “Gure ustez, 3.040 sinadurek babestutako proposamenak eztabaida politiko eta sozial zabala, zorrotza eta lasaia merezi du. Irailean arte zabalik egongo gara udal taldeekin biltzeko, proposamenak entzuteko eta hobekuntzak eztabaidatzeko, betiere ekimenaren oinarritzko printzipioak errespetatuz. Azkenik, adierazi nahi dugu plataformak ekimen hori lantzen jarraituko duela datozen hilabeteetan, irailean proposamena erakunde-eremura berriz helarazteko helburuarekin”.



## Pagatxa elkartekoak Pragan egon dira

**S.H.** Pagatxa Emakumeen Elkarteko 47 bazkide Pragan egon dira, ekainaren 13tik 17ra. Hiri zoragarri horretan gora eta behera ibiltzeaz gain, Unescoren Ondarea den bere gune historikoa, gaztelua, Karlosen Zubia... ikusi zituzten, eta Karlovy Varyra ere joan ziren, ur sendagarrietatik edan eta Moldava ibaian zeharkaldia egiteko.



## Eibarko Kaleetan Kantuz abesbatzako kideak Galizian aritu dira abesten

**S.H.** Eibarko Kaleetan Kantuz abesbatzako 32 lagun Galizian egon dira. Ekaineko azken asteburuan joan ziren bidaiari eta barixaku arratsaldean A Guardan kantuan aritu ziren. Zapatu goiza turismoa egiteko baliatu zuten: Baiona (Galizia), Tui eta Portugalgo Valença do Minho bisitatu zituzten, domekan Eibarrera itzuli aurretik.



## 1963an jaiotakoen jaira joateko izen-ematea zabaldu dute

**S.H.** 1963an Eibarren jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 3an. Parte hartu nahi dutenek 95 euroko diru-sarrerara egin beharko dute, Kutxaren ES29 2095 5035 00 9126903863 kontu-zenbakian, izen-abizenak adierazita. Prestatzen ari diren egitaraua 12:30ean hasiko da: hamaiketako, talde-argakia, txikiteoa, bazkaria (Arkupen), poteoa eta jaiaren amaiera, Tas Tasen. Jatetxearen toki-mugak direla eta (100 plaza), kupoa beteta dagoenean itxiko da kontu korrontea. Informazio gehiago: 1963eibar2013@gmail.com.



## 105.270 euro Orbeako mantentze-zerbitzurako

**S.H.** Eibarko Udalak Orbea kiroldegiko mantentze-zerbitzurako kontratu berriaren lizitazioa onartu du. Kontratuak 105.270 euroko aurrekontua izango du (BEZa barne), eta 2026ko irailaren 21etik 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.



## Idoia Urrutibeaskoa eibartarrak Aita Gabriel Jauregi saria jaso du Iruñean

**S.H.** Materialen zientziaren arloko ikertzaile akademikoak eta adituak urtero biltzen dituen Materialen Zientzia eta Teknologiaren (MZT) VII. Kongresua egin berri da Iruñean, uztailaren Iean eta 2an, eta bertako batzorde zientifikoak Aita Gabriel Jauregi saria eman dio jatorriz eibartarra den eta Abadiñon bizi den Idoia Urrutibeaskoa ikertzaileari, “zientzia eta teknologiaren arloan euskara ikeretzen, irakasten eta normalizatzen egin duen ibilbide oparoagatik”.

MZT kongresua euskarak teknologiaren esparruan duen indarra

eta gaitasuna nabarmentzeko helburuarekin egiten da. Saria emateko ekitaldian, Urrutibeaskoak arlo tekniko eta zientifikoan euskara sustatzeko erakutsi duen konpromiso sendoa nabarmendu zuten, eta ikertzaileak oso hunkituta jaso zuten ohorezko makila. Omenduak eskerrak eman zizkien antolatzaileei eta bertaratu zirenei, eta bi ezaugarri nagusi nabarmendu nahi izan zituen: aurkeztutako txosten zein posterren maila zientifiko altua, eta unibertsitateko eliteko gune batean euskara hainbesteko naturaltasunez erabiltzea.

## Langabezia-tasak gora egiten jarraitzen du Eibarren zein Debarrenean

**S.H.** Uztaileko datuen arabera, 1.518 langabetu daude Eibarren eta langabezia-tasa %12,11koa da. Horrela, langabeziak gora egin du herrian (ekainean 1.507 langabetu zeuden eta langabezia-tasa %12,03koa zen). Debarrenean, uztaileko langabezia-tasa %10,2koa

da (ekainekoa %10,09koa zen). Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%5,53) eta Sorluzek dauka altuena. Eibarren gaintetik (%12,99). Elgoibarren 486 lagun daude langabezian (%9,11); Mendaron, 89 lagun (%9,01); eta Mutrikun, 172 lagun (%6,55).

## Hutsik dauden lokaletako erakusleihoak apaintzeko programa abiatu du Udalak

**S.H.** Eibarko Udalak hutsik dauden merkataritza-lokaletako erakusleihoak apaintzeko programa abiatu du, itxita dauden lokalak erakargarriago egiteko eta merkataritza-kaleen itxura hobetzeko asmoz. Horretarako, Udalak binilo apaingarriak jarriko ditu hutsik dauden establezimenduetako erakusleihoetan, eta horiek egin eta jartzearen kostua bere gain hartuko du. Programa Barrena, Barakaldo, Karmen, Arragueta eta Urkizu kaleetako erakusleihoak duten merkataritza-lokal hutsen jabeek zuzenduta dago eta eskaerak aurkezteko epea uztailaren 24ra artekoa da. Interesa dutenek eskaera Pegoran aurkeztu ahal izango dute, pertsona fisikoak badira, edo Udalaren egoitza elektronikoren bidez, pertsona fisikoek zein juridikoek.



## Lambretta motorren 21. topaketa egingo da bihar

**S.H.** Eibarko Lambretta Klubaren eskutik, bihar (zapatua, hilak 11) egingo da urteroko Lambretta motorren topaketa, goizetik hasi eta egun osoa beteko duen egitarauarekin. Untzagan motor guztiak elkartzu eta gero, 12:00etan hasiko da kalejira.



## Lekukoa eskuz aldatu da Eibarko betiko bi negoziotan

**S.H.** Urteetan martxan egon diren Eibarko bi negoziotan jubilariaogatik eskualdatzea egin dute ekainaren amaieran. Batetik, Guadalupe Ibañez Perrinok, *Guadak* sortutako Ametsa tabernak pertsiara jaitsi zuen sanjuanak pasatu eta gero, baina ez da luzaroan itxita egongo; azken hiru urteetan bertan lanean aritu den Agus Gomez, Amaña es la

Cañako kidea eta DJa animatu da lekukoa hartzera. Bere sare sozialen bitartez adierazi duenez, “tabernak Ametsa Gin Bar izena izango du aurrerantzean ere. Hori da egin dakioken omenaldirik onena”.

Eta Izadi loradendak ere bide berriari ekin dio: San Juan kalean dagoen loradendan 40 urte eman dituen Garbiñe Ajuria ei-

bartarrari atsedean hartzeko ordua ailegatu zaio, baina dendak zabalik jarraituko du Soraluzeko Naiara eta Onintza Elgeta ahizpen ardurapean. Kasu honetan ere orain arteko bideari jarraitzeko asmoa daukatela diote ugazaba berriek eta, beraz, eskaintza eta zerbitzuetan ez da aldaketa esanguratsurik izango.

Herriko beste denda askok behin-betiko ateak itxi dituzten honetan, poztekoa da bi hauek martxan jarraituko dutela jakitea. Zor-terik onena opa diegu bie.

EIBARREN

# GIDABAIMENA

**EUSKARAZ**

ATERATZEN BADUZU

100 €

-KO  
EROSKETA-BONOA LOR  
DEZAKEZU

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
eibarrenakobai@gmail.com  
943 709426 / 686 854 965



# AMAÑAKO JAIAK

Amañako jaiak giro ezin hobean ospatu dira aurtien ere, eta ehunka lagun bildu dira hiru egunez auzoko kaleetan festaz gozatzeko. Eguraldia lagun izan genuen asteburu osoan, eta adin guztietarako prestatutako egitarau zabalak harrera bikaina izan du.





# ELA sindikatuak Eibarren ospatu du azken mende erdian izan duen bilakaera

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



ELA sindikatuak azken 50 urteko bilakaera Eibarren ospatu du, aurreko barixakuan Coliseo antzokian egindako ekitaldi bereziarekin. 'Oinarri sendoak etorkizunerako' leloari jarraituta egindako ekitaldiak jendetza bildu zuen, eta bertan adierazi zuten, "50 urte geroago, ELAk zutik, indartsuago eta ilusio handiagoarekin jarraitzen du".

**E**ibarren egindako ekitaldira 500 bat lagun bertaratu ziren. Gogora ekarri zuten, "1976an, frankismotik ateratzeko atakan, sindikatuak bere 3. kongresua egin zuten, bi saio ezberdinetan: abuztuaren, Eubako San Gabriel eskola zaharrean (Zornotza) eta, urrian, Eibarko Astelena frontoian. Orduan, ELAk onartu zituen bere printzipioak eta horrekin batera berreraiki zuen 2. Errepublikatik zetorren eraitzitate zubia".

ELA sindikatutik adierazi dutenez, "adierazpen hura bere garaian sindikatuaren sorrera-aktaren eta lehen estatutuen (1911) berrikuspena izan zen, gaur egun oraindik ere ELA definitzen duten funtsezko ezaugarriak ezarritz: euskal sindikatu abertzalea, sozialista, independentea eta bere afiliazioaren bidez finantzatua. Gogoratu behar da iaz, 16. kongresuan, ELAk bere printzipioak eguneratu zituela, 50. urteurrena aurreratuz".

Eibarren egindako ekitaldirako, 1976ko irudi historikoa berreskuratu dute (orduko kongresuen iruditeria Jose Luis Zumetak eta Joxean Artzek diseinatu zuten), baina eguneratuta, gaur egungo ikurrak eta koloreak baliatuz.

## la ehun afiliaturi omenaldia

Coliseo antzokiko ekitaldia hunkigarria izan zen eta 1977tik gaur arte afiliatuak izaten jarraitzen dutenei omenaldia egin zitzaion. Ia ehun lagun, 94 andra-gizon bertaratu ziren antzokira, eta pozik hartu zituzten sindikatu kideek ipinitako zapiak eta bertaratuak guztien txaloak. Horrez gain, sindikatuaren azken 50 urteko historia errepasatu zuten, orduko afiliatuei omenaldi gisa egin duten bideo dokumentalaren bitartez. Bertan, 1976ko uztaillaren 3an izandako bizipenak bildu dituzte eta nahi duenak ikusteko moduan eskuragarri ipini dute bideoa, [www.ela.eus](http://www.ela.eus) webgunean). Gainera, Mitxel



Eibarko Coliseo antzokiak hartu zuen omenaldira 1977tik gaur arte ELA sindikatuko afiliatuak diren 94 andra-gizon bertaratu ziren, eta oso eskertuta jaso zuten bildutako guztien aitortza. ELA.

Lakuntzak, Amaia Muñoak eta Leire Txakartegik hitzaldia eman zuten.

Sindikatuak adierazi dutenez, “ekitaldi honek azpimarratu nahi du 50 urte hauetan, ELAk bere bilakaera egin duela, beti ere mundua aldatzeko. Sindikatua ere aldatu da, gaur egun 50.000 emakume baino gehiago afiliatuta daude ELAekin, eta migratuen artean sindikatuaren presentzia gero eta handiagoa da. ELA aspalditik kontsolidatu zen lehen sindikatu gisa (%36ko ordezkaritza dauka EAEn eta Nafarroan): Hego Euskal Herriko eskualde guztietan presentzia homogeneoa duen euskal erakunde bakarra da”.

Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak omenduei zuzenduta esan zuenez, “zorioneko gaude, zuei esker asko dugu ospatzeko, egia bihurtu baita duela mende erdi Euban eta Eibarren amestu





zenuten sindikatua. Euskal Herriaren historia eta errealitatea ezin da ulertu ELA gabe". Ildo horretan, adierazi zuenez, "50 urte geroago, ELAk zutik, indartsuago eta ilusio handiagoarekin jarraitzen du herri honetako langile klasea antolatzen jarraitzeko".

ELAko idazkari nagusiaren albokoari, Amaia Muñoari egokitu zitzaion ELAko azken bi hamarkadetako aldaketei buruz hitz egitea, eta bost erabaki aipatu zituen. Hasteko, "ELA sindikatu feminista izateko hautua: oraindik bidea egiteke dugu... Gure egiteko moduak, zaintzak gurean izan behar duen tokia, lidergo eredu ezberdinak" eta beste hainbat adibide daude. Bigarrenez, "ELAk bere bokazio nazionala gauzatzeko erabakia: Iparralderako proiektua. Han deitzen duten 'ekosistema' garatzen lagundu du Manu Robles-Arangiz fundazioak azken 20 urtetan". "Euskal Herria euskaldunaren aldeko borroka" beste erabaki tinkoa da. "Gure organo gehienetan euskarara da gure komunikazio-hizkuntza", baina aurrerapausoak eman behar dira "administrazioetan eta enpresetan", euskaraz lan egitea



ahalbidetzeko. Azkenik, Muñoak azpimarratu zuen "Euskal Errepublikaren aldarria; ELAk euskal estatu baten aldeko hautua egin du, nazio eta klase emantzipaziorako xede gisa".

Bestalde, Leire Txakartegi ELAko antolakuntza arduradunak 1976an hartutako erabakien balioa aitortu zuen: "Sindikatu in-

dartsu bat jaso dugu eta gaur egun Euskal Herriko sindikatu nagusia gara, egitura handi batekin, baliabide askorekin, kaudimena daukan erresistentzia kutzarekin, kalitatezko zerbitzu juridikoekin... Hori naturaltasunez bizi dugu, baina horren atzean lan handia eta ahalegin militante handia egon da; honen oinordekoak gara gu".



polita eskaintzeko gogoz arituko da aurtengo bertsolari laukotea: An-doni Egaña, Maddi Ane Txoperena, Saioa Alkaiza eta Aitor Mendiluze, eta gai-jartzaile lanetan Jon Mikel Mujikak jardungo du. 33. edizioa beteko du aurten Arrateko saioak eta bosgarren urtea da Tiro Pitxonen egiten dela, Kantabria jate-txean 27 edizio egin eta gero.

## Salgai daude Arrateko Bertso Afarirako sarrerak

Gaurtik aurrera eros ditzakete ...eta kitto! Euskara Elkarteko bazkideek Arrateko Bertso Afarirako sarrerak. Euskara elkartean daude salgai 40 euroan uztailearen 21era arte. 23tik

aurrera, berriz, 42 euroan salduko dira ohiko salmenta-puntuetan: Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen. Arrate bezperako afaria 21:00etan hasiko da, eta afaldu ondoren saio



## Gatzagan agurtu dute ikasturtea Ongietorri programako familiek

Joan den barixakuan Ongietorri programako 10 familia, 25 lagun guztira, Gatzagara abiatu ziren bertako Gatz Museoa bisitatzen. ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatzen duen egitasmoaren ikasturteko azkeneko ekintza izan zen barixakukoa. Lehenengo eta behin, museoa bisitatu zuten eta adi jarraitu zituzten Aitor gidariaren azalpenak: nondik datorren ur gazia, noiztik ekoizten den gatz



bertan eta nola egiten den prozesu guztia... Museoa bisitatu eta gero, eskulan-tailer batean hartu zuten parte haur zein helduek. Eskulanaren osagai nagusia gatz

bertan eta nola egiten den prozesu guztia... Museoa bisitatu eta gero, eskulan-tailer batean hartu zuten parte haur zein helduek. Eskulanaren osagai nagusia gatz izan zen, jakina, eta koloretako margoak erabiliz artelan ederrarekin bueltatu ziren Eibarrera. Ekintza horrekin agurtu du ikasturtea Ongietorri egitasmoak Berbetan-eko gainerakoekin batera. Udako oporren bueltan ekintza gehiagorekin itzuliko dira ...eta kitto! Euskara Elkar-tearen eskutik.

# Saxofoiaren hiriburu bihurtu da Eibar

BIDEOA



Joan den domekan, uztailak 5, eman zitzaion hasiera Eibarsax jaialdiaren bigarren edizioari. Iazko esperientzia onaren ondoren, aurtun apustua berretsi du Xabier Oruesagasti saxofoi-jole eibartarraren ekimenez martxan jarritako proiektuak eta munduko hainbat tokitatik etorritako saxofoi ikasle eta irakasleak batu ditu Eibarren.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **YANIRE SAGREDO**

**S**axofoiaren inguruan bizi dira aste honetan Eibarsax ekimenean parte hartzen diharduten kideak. Goizean goiz gorputza berotzeko ariketak egiten dituzte Catarina Paiva dantza irakaslearen eskutik (“musikariak gorputzarekin ere egiten dutelako lan, nahiko arlo fisikoa da”, diosku Xabier Oruesagastik), gero klase indibidualak jasotzen dituzte maila goreneko irakasleekin, bazkaltzeko atsedena hartzen dute eta taldeko entseguen hasten dira bakar-kakoekin uztartuz, 19:30ean hasten diren kontzertuekin eguneroko ekintzei amaiera emanez.

Klaseez eta kontzertuez gain, beselako ekintzak ere egiteko aukera dute parte-hartzaileek. “Ganbera musika, laukote klaseak, ensemble edo saxofoi orkestra klaseak... Horrez gain, aste honetan saxofoi buru-belarri gaudenez, gure artean elkarriketak egiten ditugu, ideiak partekatzen ditugu, irakasleek programa bat nola osatzen duten ber-



tatik bertara ikusten dute... Zerbait kozinatzen ari da gure artean”, Oruesagastiren hitzetan.

**Goi-mailako ikasle eta irakasleak** Herbehereetatik, Italiatik, Txinatik eta Espainiako erkidego ezberdinetatik etorritako 16 gaztek parte hartzen dihardute Eibarsaxen bigarren edizioan. “Plaza guztiak bete egin dira eta galbahea pasa behar izan dugu. Goi-mailako ikasleak dira”, diosku Oruesagastik, iaz egindako lan onaren eta saxofoiaren munduan izan duen oihartzunaren seinale. “Lehen edizioa oso ondo joan zen, bai barneko ekintzei bai publikoaren aurrean egindako saioei dagokienez. Adibidez, iaz egon ziren bost ikaslek errepikatu egin dute aurten”, antolatzailearen berbetan.

Oruesagastiren ustez, “ikasleentzat inspirazio astea da. Formakuntza profesionalean daude, baina egunerokoan ez dute hemen sortzen den burbuilarik, ez dute hemen sortzen diren ideiak partekatzeko momenturik, goi-mailako irakasleekin uneoro egoteko aukerarik (bazkaltzen, ibiltzen, klase osteko elkarrizketetan...)... Hau plus bat da, hiru dimentsioko kontu bat. Oso esperientzia praktikoa da”.

Noski, Eibarsaxen dauden ikasleek jakintzak jasotzea ez da nolana hikoia. “Bai, oso jende potentea da”, esan digu Oruesagastik. Antolakuntzaz arduratzeaz gain, bera ere ari da irakasle lanetan eta alboan ditu Arno Bornkamp, Juana Palop, Sara Zazo eta Xavier Larsson, aipatutako Catarina Paiva dantzariak eta Tobias Borsboom piano-joleaz gain. “Irakasteaz gain, Arno eta Juana



Xabier Oruesagasti da Eibarsax-en alma materra. EKHI BELAR

## >>> Goi-mailako saxofoi ikasle eta irakasleak Eibarren daude aste honetan klaseak jaso eta musika emanldiak eskaintzen

Eibarsaxen antolakuntza artistikoaz arduratzen dira. Arno Amsterdameko irakaslea da eta 40 urteko ibilbidea du. Saxofoi klasikoaren munduan oso izen garrantzitsua da... eta hemen dago! Juana gazteagoa da, baina oso jarduera artistiko potentea du, Herbehereetan batez ere, goi-mailako laukote batekin. Xavier Berlineko unibertsitatean irakasle da eta Sara Zazok Bordeleko unibertsitatean plaza lortu zuen orain dela astebete. Bestalde, Tobiasek Netherlands Musica Prize



Aste osoan zehar Musika Eskolan egiten dituzte klaseak; kontzertu gehienak, ostera, Azitaingo parrobian. EKHI BELAR

saria irabazi zuen, Herbehereetako oso lehiaketa ospetsua. Gainera, saxofoiaren erreperitorioa oso ondo ezagutzen du. Luxuzko taldea da!”.

#### Ikuskizunak egunero

Domekan eskaini zuten lehen kontzertua, hain zuzen ere Oruesagastiren eskutik, Borsboomek pianoan lagunduta, eta astean zehar, egunero, ikuskizunak egon dira Azitaingo parrobian (eguenekoa Portaleko erakusketa aretoan, Sara Zazoren eskutik), 19:30ean. “Kontzertuek oso harrera ona izan zuten iaz eta aurten ere horrela dihardu izaten”, diosku pozik Oruesagastik. Gu geu astelehenean izan ginen Azitainen, bero handia egin zuen egunean, eta parrokia ia beteta zegoen. “Ba pentsatzen dut egunik eskasena izango dela publiko aldetik, beroaren eraginez”, antolatzaileak esan digunez.

Asteburuan emango zaio errematea Eibarsaxi eta gaur eta bihar zenbait saio eskainiko dituzte bertan aritu diren saxofoi-joleek, ikasleek

**>>> Kontzertu gehienak Azitaingo parrobian izan dira, baina Portalean ere egin da bat eta bihar udaletxeko arkupeetan egongo dira**

**>>> Ikasleek klase individualak eta taldeko saioak egiten dituzte irakasleekin Portalean**

zein irakasleek. Horrela, gaur, bari-xakua, 12:30ean, ikasleek ikuskizun berezia eskainiko dute Azitainen. “Astean zehar prestatutako erreperitorioa eskainiko dute. Oso lan gogorra egiten ari dira hori prestatzen”, Oruesagastik dioenez. Arratsaldean, ostera, irakasleen txanda iritsiko da, 19:30ean. “Programa oso berezia izango da: saxo duo, laukote eta boskote bana pianoarekin. Amsterdamen eta Alemanian ibili gara entseguak egiten eta mimo handiz prestatu dugu ‘A la russe’ deitu diogun programa, errusiar konpositoreen musikarekin”.

Zapatuan, 19:00etan, San Andres elizako klaustroan, itxiera kontzertua egongo da, “sorpresatxoekin”. Hasierako kontzerturako ‘Desplazatu’ deitu dioten pieza sortu dute eta performance moduko bat edukiko du Catarina dantzariak prestatuta. “Gero, ikasleen saxo laukoteak egongo dira eta baita saxofoi orkestra ere. 22 saxofoi-jole batera arituko gara”, aurreratu digu Oruesagastik.

# AUTOEN GEHIGARRIA

2026ko  
uztaila

## Oporretara autoz? Bidaia hasi aurretik, prestaketa ona da segurtasunaren giltza

Uda iristearekin batera, milaka pertsonak hartzen dute autoa oporretara joateko. Batzuentzat hondartza da helmuga, beste batzuentzat mendia edo familia bisitatzeko bidaia luzea. Maletak prestatzen ditugu, ostatua lotzen dugu eta ibilbidea planifikatzen dugu, baina askotan ahaztu egiten dugu bidaiako elementurik garrantzitsuen egoera onean dagoela ziurtatzea: autoa.

Izan ere, urte osoan zehar eguneroko joan-etorrietarako erabiltzen dugun ibilgailuak baldintza oso desberdinei egin behar die aurre oporretan. Kilometro gehiago, tenperatura altuak, maleta gehiago eta bidaiari gehiago. Horrek guztiak autoaren osagai askoren gaineko esfortzua handitzen du.

Horregatik, adituek gomendatzen dute bidaia luze baten aurretik tailer batera joatea. Ez da gastu bat; segurtasunean egindako inbertsioa baizik.

### Tailerrean egiten den berrikuspena

Profesional batek minutu gutxitan antzeman ditzake gidariari oharkabean pasatzen zaizkion arazoak. Batzuetan, pneumatiko baten higadura irregularra, balazta-pastillen gastua edo bateria ahulduta egoeta nahikoa izan daiteke oporrak zapuzteko.

Berrikuspen batean, besteak beste, honako alderdi hauek aztertzen dira:



**MAPFRE**  
**Ubitxa**

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

☎ 943 82 04 49

☎ 688 871 717

✉ [mubera@mapfre.com](mailto:mubera@mapfre.com)

- Pneumatikoen egoera eta presioa.
- Balazta-sistema.
- Olioaren eta gainerako likidoen mailak.
- Hozte-sistema eta erradiadorea.
- Bateria.
- Argiak eta seinaleztapena.
- Garbigailuak eta haizetakoaren egoera.
- Klimatizazio-sistema.

Udako beroarekin, adibidez, hozte-sistemaren edo aire girotuaren matxura batek bidaia oso deseroso bihur dezake. Are gehiago, motorrak tenperatura egokia mantentzen ez badu, matxura larria eragin dezake.

**Pneumatikoak, segurtasunaren oinarria**

Autoaren eta errepidearen arteko kontaktu bakarra pneumatikoak dira. Horregatik, ezinbestekoa da egoera onean egotea.

Presio desegokiak erregai-kontsumoa handitzen du, pneumatikoak gehiago higatzen ditu eta frenatze-distantzia luzatu dezake. Gainera, autoa kargatuta badao, fabrikatzaileak gomendatutako presioa egokitu behar da.

Era berean, komeni da marrazkiaren sakonera eta alboetako egoera ere aztertzea. Pitzadurak edo kolpeak badaude, hobe da ordezkatzeta.

**Balaztak eta esekidura**

Bidaia luzeetan balaztek lan handia egiten dute, batez ere mendateetan edo trafiko handiko errepideetan. Zarata arraroak, bibrazioak edo balaztatzean desore-



**GARAJE** ▼ **Legarre**

---

autoen mantenua eta konponketa  
943 20 63 71 Legarre, 2

**ACITAIN, S. A.**  
www.acitain.com ZERBITZUGUNA

- 24 ORDUKO ZERBITZUA AVIA
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Barrena, 19 943 121662 / 943 121862 acitain@gmail.com

**MAK**  
**CARROCERIAS**

**PINTURA**  
**(labean lehortua)**

943 208 502 [carrocerias\\_mak@hotmail.com](mailto:carrocerias_mak@hotmail.com) 699 203 791

**Matsaria, 2**  
**3 Pabilioia**  
**-Eibar-**

**TXAPA**

**ESARRI AUTOAK**  
MULTIMARCA

SERVICIO



Tel. 943 74 14 80  
Aitor 606 975 730  
OLASO, 17  
20870 ELGOIBAR  
[esarriauto@gmail.com](mailto:esarriauto@gmail.com)

ka nabaritzen bada, ez da komeni bidaia hasi aurretik konpondu gabe uztea.

Suspentsioak ere garrantzi handia dauka. Egoera txarrean badago, autoak egonkortasuna gal dezake eta pneumatikoen higadura azkartu.

### Ez kargatu autoa behar baino gehiago

Oporretara joatean ohikoa da maletategia azken txoraino betetzea. Hala ere, gehiegizko pisuak kontsumoa handitzen du, balazten lana zailtzen du eta ibilgailuaren portaera alda dezake.

Objektu astunenak beti behealdean eta eserlekuen bizkarraldearen ondoan jartzea gomendatzen da. Auto barruan objektu solteak uztea ere saihestu behar da; istripu baten kasuan benetako jaurtigai bihur baitaitezke.

### Gidaria ere prest egon behar da

Autoa egoera onean egotea bezain garrantzitsua da gidaria atseden hartuta egotea.

DGTk gomendatzen du bi ordutik behin edo 200 kilometro ingururo geldialdi bat egitea. Minutu gutxi batzuk nahikoak dira hankak luzatzeko, ura edateko eta atseden pixkat hartzeko.

Halaber, komeni da otordu astunak saihestea eta hidratatuta egotea, batez ere bero handiko egunetan.

### Ezusteokoetarako prest

Bidaia hasi aurretik, komeni da honako hauek ere egiaztatzea:

- Gidabaimena eta ibilgailuaren dokumentazioa.
- Asegurua eta ITVa indarrean izatea.
- Erregai-maila nahikoa izatea.
- Mugikorraren bateria kargatuta eramatea.
- Larrialdietarako telefono zenbakiak eskura edukitzea.

Gainera, botikaren bat hartu behar bada edo umekin edo maskotekin bidaiatzen bada, bidaia aldeztu aurretik planifikatzea komeni da.



### Bidaia on bat etxetik hasten da

Oporretako lehen kilometroak ilusioz hasten dira. Horregatik, merezi du denbora pixka bat autoa prestatzen ematea. Tailerreko berrikuspen simple batek matxura garestiak saihestu ditzake, baina batez ere, bidaiarien segurtasuna bermatzen laguntzen du.

Azken finean, oporrak ez dira helmugara iristean hasten; lasaitasunez eta segurtasunez abiatzeko unean bertan hasten dira.

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus

**GASOLEOEN BANAKETA**

estación de servicio  
**kantoi**  
liber

20.000 L.  
2.000 L.

**24**  
ordu

**Otaola etorbidea, 13-Bis**  
Tinoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU  
AUTOMATIKOIA**



OSKAR ARANTZABAL

## Elebkarren bakardadea

Sarri baino sarriagotan entzun (eta esan) dugu “Nire hizkuntzaren mugak nire munduaren mugak dira” edo, nahiago baduzue, nire munduaren mugak nire hizkuntzaren mugak dira. Esaldia (bietarik lehena) Ludwig Wittgenstein filosofo austriarrari egozten zaio. Askok selektibitateari esker ezagutuko dutena, baina zalantzarik gabe munduak inoiz ezagutu duen talenturik handienetako bat. Mundu akademikoaren prestigioa utzi eta Norvegiako herri galdu batera joan zen haur eskolan irakasle gisa, beharbada horregatik hilaurreko bere azken hitzak honakoak izan ziren: “Esan izeaiezu denei nire bizitza zoragarria izan dela”.

Hizkuntzak, komunikazio eta elkarbizitzarako tresna izateaz gain, mundua ikusi eta ulertzeko modu bereiztu bat ere badakarrelako bere baitan. Filosofian ohikoa den alemanierazko hitz batez baliatuz: Weltanschauung (=mundu ikuskera).

Gogora dakarkit gaztetako udaretan egiten genituen interrail haietako batean, Europako bazterrak trenez bisitatuz –maiz gaueko orduategikoak hartuz edo geltokietan lo eginez aurrekontua “doitzeko”– Belgikako federalismotik ikasitako esperientzia bat. Gazte batek, gure jatorri euskaldunaz jabetuta, bi belaunalditan Flandriako paisaia linguistikoa nola irauli zuten kontatu zigun. Valoniako frantsesaren nagusitasun elebakarra Flandriako lanpostuetarako gaitutua geratu zen, bertakoek bi hizkuntza eskaintzen zutelako arreta publiko zein pribaturako, aspertuta bigarren mailako hiritarrak izateaz.

Eta badira mundu aurreratuko (eta kulturalki aberats eta irekiago) adibide gehiago, hala nola Suitzako Konfederazioan, non lau hizkuntza guztiz ofizialak dituzten: alemana (%64), frantsesa (%23), italiara (%10) eta erromantxea (%0,5). Eta, esan gabe doa, praktikan ingelesa bosgarren gisa. Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobe! Galdetu bestela turismo bulegoetan lan egiteko zer behar den.

Bada enpresa bat, Eibartik gertu kokatzen dena gainera, duela hogeitabost urte bere euskara plana abiatu zuena, baldintza bakar batekin: denon eskubideak errespetatzea. Hau da, langile elebakar batek bere burbuilan bizitzen jarraitu nahi bazuen, ados, baina jubilatzean ordezkoa elebiduna zatekeen. Gaur da eguna euskara planik ez dutela ezta behar ere. Demagun gauza bera egin izan balitz Osakidetzan, Ertzaintzan, Administrazio Publikoan, Justizian, etab. gure errealitate linguistikoa parekideagoa (eta beraz status juridiko justuagoa) genuke.

Monarkia bananeroetan (hitzaren zentzurik zabal, ustel eta etsigarrienean), ordea, sindikatu batek nahi beste helegite jar ditzake “lan eskubide mehatxatuen” izenean (beraien soldata bildutako zergekin ordaintzen duten hiritarrenak bost axola); epaile batek auzia bertan behera utz dezake lekukoak euskaraz deklaratu nahi eta itzultzailerik (norentzat?) eskatu ez badu. Selektibitatea frantsesez egitera derrigortzen dutenak ez aipatzeagatik. Demokrazia diote...

**“Monarkia bananeroetan sindikatu batek nahi beste helegite jar ditzake lan eskubide mehatxatuen izenean”**

# “Haiek gugandik ikasten dute, baina guk ere haiengandik asko ikasten dugu”

IERA LARRAÑAGA • Oporrak Bakean Eibar-Elgoibar



Duela lau urtetik 'Oporrak Bakean' programako harrera-familia da Iera Larrañaga, eta gaur egun Eibar eta Elgoibarko egitasmoaren arduradunetako bat ere bada. Aurten hiru haur saharar etorri dira Eibar eta Elgoibarrera uda pasatzera, eta beste bi Mutrikura. Harrera-familia izatearen esperientziaz, haur sahararrek bizi duten errealitateaz eta egitasmoaren garrantziaz hitz egin dugu harekin.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

**U**da iristearekin batera, Tindufeko erre-fuxiatu-kanpalekuetatik etorritako haur sahararrak Euskal Herriko hainbat herritara iristen dira, 'Oporrak Bakean' programaren bidez. Egitasmoari esker, udako hila-beteak baldintza hobetan igarotzeko aukera dute, eta, aldi berean, harrera-familientzat ere esperientzia aberasgarria izaten da. Iera Larrañaga Eibar eta Elgoibarko programaren arduraduna da, eta duela lau urtetik harrera-familia ere bada. Besteak beste, bere esperientziaz eta Oporrak Bakean egitasmoaren garrantziaz hitz egin dugu berarekin.

## Nola hasi zinen Oporrak Bakean programan parte hartzen?

Txikitatik ezagutzen nuen egitasmoa. Deban betidanik etortzen ziren haur sahararrak udan, eta gurasoei askotan esaten nien: «Eta guk noiz ekarriko dugu haur bat?». Garai hartan gure familian ezinezkoa zen.

Urte batzuk geroago, irakasle hasi nintzen. Aldi berean, nire amak erretiroa hartu zuen, eta aukera ikusi nuen ideia berriro mahai gainean jartzeko. Nik bakarrik ezin nuen ardura hartu, baina amarekin eta gainerako senideekin hitz egin nuen, eta denon artean animatu ginen.

Urte haietan Eibarren bazegoen programa koordinatzen zuen elkarte bat. Haien bidez bertako arduradun batekin jarri nintzen harremanetan, eta duela lau urte pausoa ematea erabaki genuen. Ordutik, Abdu etortzen da urtero gure etxera uda pasatzera.

## Zenbat haur etortzen dira urtero Debabarrenera?

Azken urteotan, Eibar eta Elgoibar artean hiru haur etorri dira urtero. Nik lehen aldiz parte hartu nuen, Eibarren bi harrera-familia zeuden eta Elgoibarren bakarra. Gaur egun, ordea, alderantziz da: Eibarren familia bakarra dago, eta Elgoibarren bi gara. Horiez gain, Mutrikun beste bi familiak hartzen dituzte haurrak udan. Beraz, Debabarreanean bost haur etortzen dira urtero Oporrak Bakean programaren bidez. Debagoianean, berriz, gehiago izaten dira.

## Jende askok ez du ezagutzen haur hauen atzean dagoen errealitatea. Nondik datoz eta zergatik etortzen dira gurera uda pasatzera?

Lehenik eta behin, argitu behar da saharar herriak ez duela estatu propiorik. Marokok Mendebaldeko Sahara okupatu zuenean, milaka sahararrek ihes egin behar izan zuten, eta Aljeriako Tindufeko erre-fuxiatu-kanpalekuetara jo zuten. Gaur egun ere han bizi dira, duela ia 50 urte hasi zen erbeste egoeran. Haurrak hainbat arrazoirengatik etortzen dira gu-



Iera eta Abdu, elgoibarko harrera-familia. IERALARRAÑAGA

rera. Batetik, udan muturreko tenperaturak jasaten dituzte kanpalekuetan, askotan 60 gradutik gorakoak. Bestetik, bizi-baldintzak oso gogorrak dira.

Aste honetan bertan ia egunero hitz egin dut haien familiekin, eta kontatu didate eltxo izurrite handia dutela kanpalekuetan.

Normalean oso beldurtuta etortzen dira. Ez dakite nora datozen, ezta zer aurkituko duten ere. Askotan, gainera, familiek ez diete guztia kontatzen, lasaiago etor daitezten.

Lehen urtea bereziki gogorra izaten da. Esperientzia oso polita da, baina egokitzapenak denbora behar du. Hizkuntza ez dute ezagutzen, ohiturak desberdinak dira, eta hasieran oztopo ugari izaten ditugu. Hala ere, pixkanaka dena bere onera etortzen da.

Bigarren urtean, berriz, badakite nora datozen, familia ezagutzen dute eta egokitzapena askoz errazagoa izaten da. Hala ere, horrek ez du esan nahi urtero dena erraza izango denik. Batzuetan, hirugarren edo laugarren urtean ere aztoratuta etor daitezke, eta egokitzapena espero baino zailagoa izan daiteke. Oro har, dena den, hirugarren eta laugarren urteak izaten dira gehien gozatzen dituztenak.

## “Nire nahia da hau azken urtea izatea eta sahararrek beren lurraldera itzultzeko aukera izatea”

Esperientzia bakoitza, gainera, desberdina da. Familia batzuentzat hasieratik erraza izaten da, eta beste batzuentzat zailagoa. Azkenean, haur bakoitza desberdina da, eta ez dago bi esperientzia berdinekin. Askotan ahaztu egiten zaigu bi hilabetez beren familia atzean uzten dutela. Guk nekez bidaliko genuke hemengo haur bat bi hilabetez beste herrialde batera, familia ezezagun batekin bizitzera. Horregatik, haientzat ere ez da erraza.

**Familia askok zalantzak izaten dituzte harrera-familia izateko. Zer laguntza jasotzen dute?**

Egitasmoan parte hartzea erabakitzen duzunean, lehenik prestakuntza-saio bat jasotzen da. Bertan

azaltzen digute haurra etxeko beste kide bat bezala tratatu behar dugula: ez dugu gehiegi mimatu behar, baina ezta baztertu ere. Azken batean, etxeko beste edozein haur bezala hartu behar dugu.

Horrez gain, haurrek herriko udalekuetan, kirolkanpusetan eta bestelako aisialdi-jardueretan parte hartzen dute. Horietan izena emateko erraztasunak eta laguntzak izaten ditugu, eta horrek asko errazten du egunerokoa. Azkenean, ez gaude eguneko 24 orduetan haurrekin.

Etxean beste haur batzuk badaude, agian errazagoa izaten da, elkarrekin aritzen direlako. Nik ez daukat seme-alabarik, baina, hala ere, esperientzia erraza egin zait alde horretatik.

#### **Kultura-desberdintasunarekin loturiko anekdotarik gogoratzen duzu?**

Bai, nire etxera etortzen den haurrekin lotutako bat, adibidez. Lehen hilabeteetan, uztailean, lanean aritzen naizela ikusi zuen, eta galdetu zidan zergatik joaten nintzen lanera. Nik erantzun nion etxea eta janaria ordaindu behar ditudalako. Harrituta geratu zen. Han, askotan, etxea familiak ematen du edo eurek eraikitzen dute, eta ez zuen ulertzen zergatik ordaindu behar nuen nik etxebizitza. Horrelako egoeretan nabaritzen dira kultura-desberdintasunak; haientzat guztiz arrotzak diren gauzak dira.

#### **Zalantzan dauden familiei zer esango zenieke?**

Animatzeko. Lehen egunetan laguntzeko hor gaude gu ere. Esperientzia oso polita da, eta denetarik bizitzen da, baina, batez ere, oso aberasgarria da. Haiek gugandik ikasten dute, baina guk ere haiengandik asko ikasten dugu. Gainera, horrelako esperientziak sentsibilizazio handia sortzen dute. Beraz, zalantzan dagoen orori animatzeko esango nioko.

#### **Harrera-familia izan nahi baina ezin duenak, badu beste modurik laguntzeko?**

Bai. Janari eta material bilketak egiten dira, gero kanpalekuetara bidaltzeko. Horrez gain, herriz herri antolatuta dauden elkarteek diru-bilketak ere egiten dituzte, eta funts horiek kanpalekuetan martxan dituzten proiektuak aurrera eramateko erabiltzen dira.



Brahim, Alex, Irune eta Luka, harrera-familia eibartarra.

## **“Esperientzia oso polita da; denetarik bizitzen da, baina oso aberasgarria da”**

#### **Amaitzeko, zer mezu helarazi nahiko zenieke irakurleei?**

Nire nahia da hau azken urtea izatea eta sahararrek beren lurraldera itzultzeko aukera izatea. Hala ez bada, gure laguntza beharko dute aurrerantzean ere.

Era berean, gogorazi nahiko nuke Espainiako Estatuak izan zituela Saharako lurra bere administraziopean, eta handik alde egin zuenean Marokok okupatu zituela. Horregatik, uste dut Espainiako Estatuak baduela erantzukizuna auzi honetan, nahiz eta askotan ez den onartu nahi izan.

Horrek guztiak ondorioak ditu gaur egun ere, eta, nire ustez, saharar herriari laguntzen jarraitu behar diogu, bere eskubideak berreskuratu eta bere lurraldera itzultzeko aukera izan dezan.



# Haur eta gazteak udalekuetan: aktibo eta, era berean, fresko



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Uda iristearekin batera, ehunka haur eta gaztek uda modu aktiboan igarotzeko aukera dute Eibarren. Udalak, kirol klubek eta herriko beste eragile batzuek askotariko udalekuak antolatu dituzte, adin eta interes desberdinetara egokituta. Jolasak, kirola, sormena, irteerak eta bizikidetza uztartzen dituzte egitasmoek, oporrak gozatzeko ez ezik, ikasteko eta harreman berriak egiteko aukera ere eskainiz.

**U**da garaia iritsi da, eta ikastetxeetako ikasgelak hutsik geratu diren bitartean, Eibarko kirol instalazioak, parkeak eta udal espazioak haur eta gaztez bete dira berriro. Herrian antolatutako udaleku eta campus ezberdinek ehunka parte-hartzaile biltzen dituzte aste hauetan, aisialdi hezitzailea, kirola eta sormena uztartuz.

Urtero bezala, Eibarko Udalak udaleku irekiak eskaini ditu aurten ere. Lehen Hezkuntzako haurrei zuzendutako programa honek hainbat txandatan banatzen ditu parte-hartzaileak adinaren arabera ('Udan jolasean', 'Oporrak afariketan', 'Umiak firin fara' eta 'Firin faran'), eta jolasak, tailerrak, kirol jarduerak, ur-jolasak, irteerak eta talde-dinamikak egiten dituzte goizero. Jarduera guztiak euskaraz garatzen dira, eta helburu nagusia opor garaian haurrek aisialdia modu hezitzaile eta parte-hartzailean bizitzea da, autonomia, bizikidetza eta ingurunea eza-gutzea sustatuz. Aurten, 695 haurrek egin zuten bertan parte hartzeko eskaera eta guztiak onartu dituzte.

Aurtengo edizioak, gainera, berritasun nabarmena ekarri du. Hainbat urtetan Astixa aisialdi elkarteak arduratu izan da udalekuak antolatzeaz, baina aurten Bizikidetu enpresak hartu du lekukoa, Udalak egindako lizitazioaren ondoren. Dena dela, udalekuak antolatzeko ereduan aldatuta gertatu bada ere, programaren helburu nagusiek bere horretan diraute: haurrei kalitatezko aisialdia eskaintzea eta udako oporretan euskaraz bizitzeko gune erakargarria sortzea.

Nagusiagoentzat, berriz, 'Gaztetan Udalekuak' antolatu ditu Udalak. Programa hau DBHko gazteei zuzenduta dago, eta haien interesetara egokitutako jarduerak biltzen ditu. Irteerak, ur-jarduerak, kirol-pro-

bak, abentura-ekintzak eta talde-dinamikak egiten dituzte asteotan, gazteen autonomia, parte-hartzea eta harreman sozialak indartzea helburu.

### **Kirola, sormena eta ingelesa**

Kirola maite dutenentzat ere eskaintza zabala dago. Adibidez, futbola egitea gustuko dutenek SD Eibar Fundazioaren Udako Campusean hartu dezakete parte. 2014. eta 2017. urteen artean jaiotako haurrei zuzenduta dago, eta jarduera nagusiak Ipuruako Anexo zelaian egiten dituzte. Futbol entrenamenduak dira ardatza, baina antolatzaileek argi dute campusaren helburua ez dela teknika lantzerantz mugatzen: talde-lana, errespetua, ahalegina eta elkarbizitza ere eguneroko jardueren parte dira. Horrez gain, parte-hartzaileek Ipuruako bisita gidatua, jolasak eta bestelako ekintza osagarriak ere izaten dituzte, eta txanda bakoitzean 70 haur inguruk parte hartzen dute.

Eskubaloiak ere badu bere tokia udako egitarauan. Eibar Eskubaloiak antolatutako udalekuetan, kirol modalitate honetan trebatzeko aukera dute haurrek, baina entrenamendu teknikoak ez dira eskaintzaren osagai bakarra. Jolas kooperatiboak, talde-jarduerak eta aisialdiko ekintzak ere egiten dituzte, kirolaz gozatzeko eta balioak lantzeko, klubeko entrenatzaile eta begiraleek gidatuta.

Udako eskaintza ez da kirolera mugatzen. Kaxa sormen guneak Kaxalekuak antolatu ditu aurten, sormena eta esperimendazioa ardatz dituen aisialdi proposamenarekin. Bertan parte hartzen duten haurrek eskulanak, arte tailerrak, jolasak eta irudimena lantzeko jarduerak egiten dituzte, adinaren arabera egokitutako taldeetan. Haurrek ondo pasatzeaz gain, helburuak sormena garatzea, elkarlanean aritzea eta esperientzia berriak giro atsegin eta parte-hartzailean bizitzea dira.

Eta uda hizkuntza berriak ikasteko edo dagoneko dakizkigunen jakintza indartzeko ere balio duenez, Nekane Pastor ingeles akademiak 'Summer camp' egitasmoa antolatu du. Bertan, 3 eta 12 urte bitarteko haurrek ingelesa modu naturalean praktikatzeko aukera dute jolasen, tailerren, eskulanen, sukaldaritza jardueren, esperimenduen, kirolaren eta irteeren bidez.



## **Herriko haur eta gazteek mota askotako ekintzak egiteko aukerak dituzte, herritik irten gabe, udan zehar**



Goian, Eibar Eskubaloien udalekuak. EIBAR ESKUBALOIA Behean, SD Eibar-en Udako Kanpusa. SD EIBAR



## GPS Txapelketan 6. postua lortuta, denboraldia amaitu du Eibar Rugby Taldeak

**E.B.** Amaitu da denboraldia Eibar Rugby Taldearentzat. “Lan, ikasketza eta une ahaztezin bezalako denboraldia” izan da, euren berbetan, eta titulu bat lortu dute tartean, Zilarrezko Erreginaren Kopa.

Eibartarrak lehiatu diren azken torneoa Espainiako GPS Txapelketa izan da, errugbi zazpian (seven), eta txapelketak izan dituen

bi jardunaldietan seigarren izan ondoren, postu horretan amaitu dute. Garaikurra Olímpico de Pozuelok eraman du eta Turia izan da bigarren.

Aurten oinarri sendoak ezarri ondoren, gogotsu eta indarberrituta itzuliko dira datorren denboraldian errugbilari gorri-urdirak, helburu handiagoak lortzeko asmoz.

## Eskozia La Bravak mende laurdena ospatuko du bihar

**E.B.** Mende laurdena bete du aurten Eskozia La Brava lagunarteak eta, hori ospatzeko, jai handia egingo du bihar.

Futbola (ia) albo batera laga eta jai giroan murgilduko da Eskozia La Brava egun osoko egitarauarekin eta musikarekin errematatuko du eguna, Painapple, Urkari eta Lordwitch taldeek kontzertua joko baitute.



## Gipuzkoako Bola Topaketa egingo da bihar Lasturren

**E.B.** Bihar, zapatua, uztailak 11, Gipuzkoako Bola Topaketa egingo da Lasturren.

Goizean, 10:30ean, modalitate bakoitzaren aurkezpena egingo da eta gero hasiko da jokoak.

Eguneko egitarauarekin hasiteko, bola (hiru-txirlo eta bolatoki modalitateak) eta toka saioak egingo dira, eta amaitzean modalitate bakoitzeko sari banaketa egingo da.

Eguna borobiltzeko, 14:30ean bazkaria egingo da.



## Mendian federatzeko txartela Deporren, 16ra arte

**E.B.** Euskal Mendi Federazioaren eta Eibarko Klub Deportiboaren oporraldiak direla eta, uztailaren 16an amaituko da Deporren federatu txartela tramitzeko azken eguna. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero: mendia@deporeibar.com edo 943 20 19 04.





sikoaren arduraduna, Jon Zabalak jarraituko du atezainen entrena-tzaile izaten eta Andoni Azkargorta joko-analisiaz arduratuko da.

**Aurrendenboraldia**

Klubak bost lagunarteko programa-tu ditu momentuz: uztailaren 18an Alavesekin Guardian, 25ean Athle-ticekin Zamudion, 29an Sanserekin Zubietan, abuztuaren 1ean Getxoko Arenasekin Areitio eta 8an Real Unioneekin Irunen.

**Taldea osatzen**

Cesar Palacios kirol-zuzendariak as-teleheneko prentsaurrekoan azaldu duenez, “gai batzuk Beñat San Jose-ekin planifikatuta zeuden eta ezin duzu atzera egin”. Dena dela, zabalik laga zuen mugimendu gehiago ego-teko aukera.

Oran arte hiru baja eta hiru alta izan ditu Eibarrek: Jose Corpasek, Toni Villak eta Marco Morenok taldea laga dute, eta Pejiño, Ivan Gil eta Imanol Garcia de Albeniz etorri dira.

Horrez gain, azken denboraldian Barakaldo CF-n lagata ibilizen Mar-kel Arana atzelariak lehen taldeko fitxa izango du.

**SD Eibar Hypermotion Ligaren 2026/27 denboraldirako prestatzen hasi da**

**E.B.** Martitzenean eta eguaztenean proba medikuak egin ondoren, eguenean ekin zion SD Eibar-ek aurrendenboraldiari. Astelehenean, ostera, Jokin Aranbarri Arrizabalaga entrenatzaile berriak lehen prent-saurrekoa eskaini zuen Ipuruan eta hunkituta agertu zen.

Eibarren harrobian zortzi urte egin ondoren, azken bi denboral-dietan Athletic Club-en harrobian aritu da Aranbarri eta orain iritsi

zaio talde nagusi bat entrenatzeko aukera handia, etxean gainera. Ez bakarrik Eibarrekin duen loturaga-tik, baizik eta hainbat urtez Gorputz Hezkuntzako irakaslea izan delako herriko ikastetxe batean.

Aranberrirekin batera Mikel Bal-enziaga futbolari ohia egongo da eibartarren aulkian, berarekin Ei-bar B-n aritu zen Carlos de Blasis izango da prestatzaile fisikoa, Mikel Calvo izango da berregokitzapen-fi-

 <p><b>FUNEUSKADI</b> Grupo Asistia</p>	 <p><b>FUNERARIA MUGICA</b> Funerariak</p>
 <p><b>TANATORIO EIBAR</b></p>	 <p><b>TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR</b></p>
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951</b> <b>www.funeuskadi.com</b></p>	
<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	



**DEVI OM**

**YOGA ETA AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapia naturalak

☎ **641 512 059**

**TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)**

## Pello Osoro Gorillaman Half lasterketan irabazle

**E.B.** Gorillaman Half lasterketa, jokatzen domekan, uztailak 5, Montaubanen (Frantzia). Giro eguzkitsu eta beroarekin, half distantziako probari egin zioten aurre parte-hartzaileek eta bertan eibartar bat izan zen nagusi: Pello Osoro.

Atleta eibartarra oso pozik agertu da egindako lanarekin eta podiumean ederki gozatu zuen bigarren eta hirugarren sailkatuekin.



## Alex Albistegi Athletic Club-en talde teknikora

**E.B.** 2021ean botak eskegi ondoren, Burgos CF taldearen harrobian izan da Alex Albistegi eibartarra eta azken urteetan Burgos B zuzendu du. Orain, itzultzaile lanak egingo ditu, besteak beste, Edin Terzic entrenatzaile berriaren egokitzapena errazagoa egiteko asmoz.

Albistegirentzat ez da lehen aldia izango Lezaman, txikitik Athletic-en harrobian urte batzuk egin zituelako. Gero, Zubietara joan zen Realean aritzeko eta Lehen Mailan ere debuta egin zuen, 2010ean, Martin Lasarte entrenatzailearen eskutik. Ondoren, SD Eibarren aritu zen urtebetez eta hainbat taldetan ibili zen 2021ean Sestao Riverren amaitzeko.



## Portugaletok irabazi zuen zapatuan Eibarko Hiria 40. Xake Txapelketa

**E.B.** Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritako xake jokalaria hartu zituen joan den zapatuan, uztailak 4, Jose Mari Kruzeta omenez egiten den Eibarko Hiria Txapelketaren 40. edizioak.

16:30ean eman zitzaion hasiera lehiari eta, hamazazpi txandaren ondoren, Portugaleteko xake elkarteko laukoteak bere nagusitasuna erakutsi zuen, 60 puntu lortuta txapela jantziz.

Podiumean Abadiño (53,5 puntu) eta Barakaldo (47,5 puntu) izan

zituena alboan Portugaletok, eta Eibarko Klub Deportiboaren taldeek behe-rago amaitu zuten. Hain zuzen ere, Eibar A 10. izan zen 29,5 punturekin, Eibar B 12. 24,5 punturekin eta Eibar C 16. izan zen 10 punturekin.

Antolatzaileen berbetan, “txapelketako aipamen berezia, Azkoitiko Anaitasuna-Kakute elkarteko emakumeek osatutako Anai Neskak taldearentzat izan zen, urte gutzian emakumeen xakearen alde egiten duten lanagatik”.

## Pablo Aranceta omendu dute Eskubaloien Galan

**E.B.** Bergaran jaio arren, Pablo Aranceta hiru urterekin etorri zen Eibarrera bizitzera eta, besteak beste, lan handia egin du eskubaloien alde gure herrian. Horrela, egindakoa eskertzeko, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Zilarrezko Intsignia jaso zuen ekainaren 19an, Oñatin egin zen Gipuzkoako Eskubaloien Galan.

Bera Bera laga berri duen Imanol Alvarez ermuarra ere omendu zuten.



## DEBABARRENEAN ZEHAR



Mendaroko eta Mutrikuko jaien inguruko bi bideo labor argitaratu ditugu gure sare sozialetan. Pieza dinamikoa eta arinen bidez, bi herrietako jaietako egitarauaren xehetasun nagusiak, ohiturak eta galdu nahi ez diren hitzorduak bildu ditugu. Bideo hauek uztailean zehar Debabarreneko udako jaiak eskainiko diegun eduki sortaren lehen aleak izango dira.

### ALBISTEAK

Gipuzkoako adinekoen hainbat egoitzatan greba deitu zuen ELAK eguazten eta barixakuan lan baldintzak hobetzeko.

Ertzaintzak barne-ikerketan abiatu du Ermuan adingabe batek ustez jasandako erasoak argitzeko



### Uzt 10

JAIK	<b>SALLABENTEKO JAIK</b>	17:00	HERRIAN ZEHAR (ERMUA)
JAIK	<b>URAZANDIKO JAIK</b>	19:00	URAZANDI (ELGOIBAR)
JAIK	<b>SAN ANDRESKO JAIK</b>	19:00	SAN ANDRES (SORALUZE)
ERAKUS.	<b>BILDUMA BATEN TXATALAK</b>	19:00	OREKA ART GALERIA (SORALUZE)
AZOKA	<b>"ZERUMUGAREN GAINETIK"</b> V. GARAGARDO AZOKA	13:00	GOÑATI FRONTOIA (MENDARO)
TXAPELK.	<b>FRONTENIS</b>	19:00	ZABALSORO (ITZIAR)
BERTSO.	<b>ITURRI ONDOAN: BERTSO SAIOA</b>	22:00	PLAZA ZAHARRA (DEBA)
MUSIKA	<b>J.M. ATLANTIDA</b>	20:00	ONDARGAIN (DEBA)

### Uzt 11

JAIK	<b>SALLABENTEKO JAIK</b>	17:00	HERRIAN ZEHAR (ERMUA)
TOPAK.	<b>CLUB LAMBRETTA EIBAR XXI. TOPAKETA</b>	10:00	UNTZAGA (EIBAR)
JAIK	<b>URAZANDIKO JAIK</b>	19:00	URAZANDI (ELGOIBAR)
JARD.	<b>TXIMAS EGUNA</b>	12:00	GAZTETXEAN (SORALUZE)
TAILER.	<b>"BATUKADA FEMINISTA"</b> AHALDUNTZE ESKOLA	10:00	HERRI ANTZOKIA (SORALUZE)
JAIK	<b>SAN ANDRESKO JAIK</b>	19:00	SAN ANDRES (SORALUZE)
AZOKA	<b>V. GARAGARDO AZOKA</b>	09:00	GOÑATI FRONTOIA (MENDARO)
TXAPEL.	<b>BOLARI EGUNA</b>	10:00	LASTUR (ITZIAR)

### Uzt 12

MUSIKA	<b>NAZIOARTEKO FLYSCH ORGANO JAIALDIA</b>	12:00	SANTA MARIA (DEBA)
TAILER.	<b>EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA TAILERRA</b>	17:00	LATSURREGI, 2 (DEBA)



## “Liburutegiak ez du adinik” abiaturate Egogain egoitzan

**S.H.** Eibarko Udal Liburutegiak nobela-bilduma bat eraman du egoitzara, adinekoek irakurketaz gozatzeko jarrai dezaten liburutegira joan beharrik gabe. Aurrerantzean, beraz, Egogain egoitzako erabiltzaileek Eibarko Udal Liburutegiko liburuak bertan irakurri ahal izango dituzte. Adineko pertsoneri irakurketa gerturatzeko helburuarekin abiatu dute ekimena, eta zentroko zuzendaritzak egindako eskaerari erantzunez jarri dute martxan zerbitzua. Horrela, liburutegira joateko zailtasunak dituzten pertsonen irakurketaz beren ohiko ingurunean gozatu ahal izango dute, lekuz aldatu beharrik gabe.

Udalaren esanetan, zerbitzu berri honek egoiliarren ongizatea, entretenimendua eta parte-hartze kulturala sustatuko ditu. Horrez gain, Udal Liburutegiak bere ohiko instalazioetatik harago zabaldu du zerbitzua, kultura herritar guztiengana hurbiltzeko eta irakurzaletasuna sustatzeko helburuarekin.



## ‘Aztura’ dantza ikuskizuna bertan behera geratu da

**S.H.** Gaur gauean, 22:00etan Eibarko Bizikleta Plazan egitekoa zen *Aztura* dantza ikuskizunaren emanaldia bertan behera geratu dela jakinarazi du Udalak.



## Sariak banatu dizkiete Argazki Rallyko irabazleei

**S.H.** Aste honetan eman dituzte ezagutzera Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik maiatzaren 31n egindako Argazki Rallyaren irabazleak. *Digital kolorez* izeneko kategorian, Javier Lopez Fabianek eskuratu du lehen saria, Jose Miguel Romerok bigarrena eta Patxi Irazabal Campok hirugarrena. Sari soziala Txema Artetxerentzat izan da, eta haurren saria Uxue Solana Dominguezek eraman du. Eta *Zuribeltz paperean* izeneko kategorian, berriz, Carlos Romerok Bilbao irabazi du lehen saria, Bakarne Elejaldek bigarrena eta Zigor Astigarragak hirugarrena. Sari soziala, berriz, Virginia Arakistaintzat izan da. Sari-banaketa ekitaldia martitzenean egin zuten, Eibarko Klub Deportiboaren egoitzan.

## Bi saio egingo dira Deban, Marea Gora hitzaldi-zikloaren eskutik

**S.H.** Ikasten – Espereintzia Eskolako 18. promozioak bultzatutako Marea Gora hitzaldi-zikloaren baitan, uztailaren 15ean (eguztana) *Euskal itsasogintza eta itsas historia XVI. eta XVII. mendeetan* izenburuko hitzaldia emango du Xabier Alberdi Lonbidek, 19:00etan Debako Kultur Elkartearen. Eta hurrengo asteako eguztenean, berriz, Oihane Cabezas Basurkoren txanda izango da, toki eta ordu berean. Bere hitzaldiaren izenburua *Lo que el mar esconde y nos devuelve: micro-plásticos y basuras marinas en nuestros rios y playas* da, eta gaztelaniaz arituko da.





## Mercedes Kareagari buruzko ikerketa-lanaren aurkezpena

**S.H.** Uztailaren 15ean, eguaztenean aurkeztuko dute "Mercedes Kareaga Gisasola (1908-1997) liburua, 18:00etan udaletxeko Osoko Bilkura Aretoan. Liburu hau 2022an kaleratu zen Mercedes Kareaga ikerketabekaren emaitza da, eta Begoña Etxenagusia Atutxa da ikerketaren eta liburuaren egilea. Kazetaritzan lizentziaduna eta Historian doktorea den Begoña Etxenagusia ikerketa-esparru nagusia kolonialismoaren ingurukoa izan da.

Bi urteko ikerketaren emaitza da hurrengo astean aurkeztuko den liburua; Mercedes Kareagaren bizitza eta, bereziki, gizartegintza arloan izandako ekarpena balioan jarri nahi izan du egileak.



## Alex Davies eta Glass Out Quartet-en kontzertua

**S.H.** Eguenean, uztailaren 16an, Alex Davies eibartarraren taldeak, Glass Out Quartet izenekoak kontzertua emango du Eibarko Bizikleta Plazan, 20:00etan. Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan sortu zen laukotea: hainbat urtez taldekide izan ondoren, eta noizean behin Bartzelonako musika-eszenan elkarrekin jo eta gero, 2025ean taldea osatzea erabaki zuten.



## Zabalik dago Debarreneko aisialdiko begirale ikastaroan izena emateko epea

**S.H.** Debarreneko udalek aisialdiko begirale ikastaroaren edizio berria antolatu dute 2026-2027 ikasturterako. Izena emateko epea zabalik dago jada, eta ikastaroa amaitzen dutenek, praktikaldia bukatutakoan, Eusko Jaurlaritzak homologatutako "Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale" titulu ofiziala eskuratuko dute.

Aurtengo ikasturtean 36 lagunek parte hartu dute Gaztetxoak Eskolako teknikariek emandako prestakuntzan: 11 eibartarrek, hiru mutrikuarrek, bost mendarorrek, hiru debarrek, zazpi soraluzetarrek eta beste zazpi elgoibartarrek. Bi taldetan banatuta, saioak Eibarren, Elgoibarren eta Mendaron egin dituzte, eta egonaldiak ere izan dituzte Zugaztietako aterpetxean. Praktikaldia amaitutakoan jasoko dute titulazio ofiziala.

Antolatzaileek ikastaroak izandako harrera ona nabarmendu dute, eta horregatik datorren ikasturtean ere eskainiko dute. Prestakuntza euskaraz izango da, eta parte-hartzaileek 18 urte izan beharko dituzte atal teorikoa amaitzerako, 2027ko ekainaren 30erako.

Ikastaroaren atal teorikoa urrian hasiko da eta maiatzean amaituko da. Guztira 150 ordu izango ditu, bi tutoretza-saio eta asteburu osoko hiru irteerarekin. Ondoren, ikasleek 160 orduko praktikaldia egin beharko dute boluntario gisa. Larunbatetako saioak Debarreneko bi herritan egingo dira, izen-ematearen arabera, 09:30etik 18:30era.

Matrikularen prezioa 300 eurokoa izango da. Hala ere, Debarreneko udalerriren batean erroldatuta daudenek 150 euro baino ez dituzte ordainduko. Ikastaroan izena emateko epea irailaren 18ra arte egongo da zabalik.

ERRAZA

		8		6				2
				9	5			3
			3			5	4	
				3		8	6	
7		1				4		5
	3	6		5				
	1	4			8			
6			9	1				
5				4		7		

SUDOKUA

5	9	3	2	4	6	7	8	1
6	8	7	9	1	3	2	5	4
2	1	4	5	7	8	3	9	6
8	3	6	7	5	4	1	2	9
7	2	1	6	8	9	4	3	5
9	4	5	1	3	2	8	6	7
1	6	9	3	2	7	5	4	8
4	7	2	8	9	5	6	1	3
1	9	7	2	8	6	1	3	5
3	5	8	4	6	1	9	7	2

1	2	9	5	8	7	6	3	4
5	8	4	3	6	1	2	9	7
3	6	7	2	9	4	5	1	8
8	3	1	7	5	6	9	4	2
6	4	2	9	1	8	7	5	3
9	7	5	4	3	2	8	6	1
2	9	8	1	4	5	3	7	6
7	1	3	6	2	9	4	8	5
4	5	6	7	3	1	2	9	8

ZAILA

	5	6			3	1	2	
7				2	9			
			1					
						6	1	
	4	2				7	5	
8	3							
				4				
				3	6			7
	2	9	5			6	3	

7 DESBERDINTASUNAK



# Uztailak 10 - Uztailak 16

## BARIXAKUA 10

### AMAÑAKO JAIAK

**14:30** Jubilatuetako bazkaria, Amañako Jubilatuen Zentroan.


## ZAPATUA 11



### LAMBRETTA TOPAKETA

**10:00** Club Lambretta Eibar XXI. topaketa. Untzaga plazan egingo den kontzentrazioarako izen-ematea. **12:00** Irteera, Eskozia la Brava taldeko kideen eskutik. Amaiera Arraten izango da. **15:00** Bazkaria Arraten, Tiro Pitxon jatetxean. **17:00** Garaikurren banaketa eta

sarien zozketa bertaratu-takoen artean. **18:00** Eibarrera buelta. Lambrettak Untzagan aparkatuko dira. **18:30** Geldialdia, Ongi Etorri tabernan. **18:30** Geldialdia, Koskor tabernan.



### 25. URTEURREN-JAIA

**11:00** Eskozia La Brava lagunartean 25. urteurrena. Txupinazoa, Lambretta motorren kontzentrazioa, gonbidatuei harrera eta ohorezko aureskua. Untzaga. **11:55** Lambretta motorren topaketaren irteera. **12:00** Trikipoteoa, Eibarko Trikitilariekin. Guridi tabernatik hasita. **15:15** Bazkaria. Astelena frontoia. **18:30** Armaginen poteoa, Burrunba elektro-

txarangak girotuta. **20:30** Kontzertuak: Painapple eta Lordwitch (00:00) + sorpresa. Untzaga (harmailen alde). **01:30/04:00** Jaiaren amaiera, Arno DJ-arekin. Arkupe taberna.



### EIBARSAX

**19:00** Saxofonista gazteen ganbera musika eta saxofoi orkestraren kontzertua. Untzaga (udaletzeko arkupeak).

### AMAÑAKO JAIAK

**21:00** Bertso-afaria, Andoni Egaña eta Iruña Basagoi-ti bertsolariekin. S.C.R. Amaña soziedadean.

## EGUAZTENA 15



### LIBURU AURKEZPENA

**18:00** Begoña Etxenagusia Atutxaren "Mercedes Kareaga Gisasola (1908-1997)" liburuaren aurkezpena. Udaletxea (Osoko Bilkura Aretoa).

## EGUENA 16

### MUSIKA

**20:00** Alex Davies. Glass out Quartet. Eibarko Bizikleta Plaza.



+

## Remedios Caño Ircio ("Mari")

Jose Lascurainen alarguna

2026/06/25

"Ama, ama, ama,  
hemen gaude"



Eskerrik asko une hauetan  
gurekin egon zareten guztioi.

- ZURE FAMILIA -

## ZINEA COLISEO



**“Los últimos días de María Antonieta”**  
DRAMA

2024/Frantzia/101’  
Zuzendaria: Gianluca Jodice  
Aktoreak: Guillaume Canet, Mélanie Laurent, Aurore Broutin  
Garaiko drama. XVIII.

**1 ARETOA**

- **11n**: 19:45, 22:30
- **12an**: 20:00
- **13an**: 19:30



**“Haciendo amigos”**  
KOMEDIA

2026/Espainia/110’  
Zuzendaria: David Marqués  
Aktoreak: Antonio Resines, Quim Gutiérrez, Megan Montaner  
Lapurretak. Dibertsitate funtzionala. Antzerkia

**1 ARETOA**

- **11n**: 17:00
- **12an**: 17:00

**ANTZOKIA**

- **11n**: 19:45, 22:30
- **12an**: 20:00
- **13an**: 19:30



**“La muerte de Robin Hood”**  
ABENTURA. DRAMA

2026/AEB/123’  
Zuzendaria: Michael Sarnoski  
Aktoreak: Hugh Jackman, Jodie Comer, Bill Skarsgård  
Erdi Aroa. XIII. mendea

**2 ARETOA**

- **11n**: 17:00, 19:45, 22:30
- **12an**: 17:00, 20:00
- **13an**: 19:30



**“Minions & Monsters”**  
Animazioa. Komedia. Abenturak

2026/AEB/90’  
Zuzendaria: Pierre Coffin  
Aktoreak: Allison Janney, Christoph Waltz, Jeff Bridges  
Sekuela. Familia-zinema

**ANTZOKIA**

- **11n**: 17:00
- **12an**: 17:00

### Juan Felipe Arana Etxaburu

2022/09/21



“Gure bihotzean betiko”

ZUEN LAGUNAK

### Maria Nieves Retolaza Gonzalez

2025/07/13





[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)  
zorion-agurrak



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: **FORMULARIO** bat betetzea **ETAKITTO.EUS** webgunean (QR-aren bidez sartu zaitzekete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **DANEL!** Uztailaren 2xan 4 urte potolo bete zenduaz eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Jontxuren partez.



Zorionak **IARA!** Hilaren 6xan urtiak bete dittuzu eta. Asko maite zaituzten gurasuen partez.




Zorionak **JON!** Hillaren 5ian 12 urte beteko dozuz. Segi beti bezain jator! Asko maite zaittugu.



Zorionak **ASIER!** Hilaren 4an 6 urte beteko dozuz! Egun zoragarria opa detsugu! Besarkada haundi bat famelixaren eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak **HEGOA!** Ekainaren 29xan 7 urte bete zenduaz eta! Gure etxeko printzesa! Asko maite zaittugu.



Zorionak **AUKAN!** txapeldun, martitzenian 6 urte bete zenduaz eta!! Besarkada erraldoi bat famelixa guztixan partez eta segi beti bezain maitagarri!



Zorionak **MARKEL!** la konturatu barik urtetxo bat bete dozu eta. June eta famelixa osuan partez patxo pilote bat.



Zorionak **TELMO!** zure laugarren urtebetetzian. Patxo haundi bat famelixa eta, batez be, Juliarren partez.



Zorionak **PERU!** Astelehenian 4 urtetxoak egin zenduaz eta. Besarkada haundi bat etxekuen partez, txapeldun!!!



Zorionak **MARKEL!** Martitzenian 6 urte egin dozuz. Infinito maite zaittugu, txapeldun! Amatxo, aitatxo eta Jon.



Zorionak **ENEKO!** Uztailaren 15ian 11 urte beteko dittuzu eta. Musu haundi-haundi bat famelixaren eta, batez be, Eleneren partez!



Zorionak tia **SILBIA** (uztailaren 1ian 51 urte) eta **LUKEN** (uztailaren 8xan 11 urte). Laztan haundi bana famelixa eta laguneren partez.

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- 22 metro koadroko trastelekua saltzen da. Kanpoaldera ematen duen leihoa du, Legarre dorrean. 626 71 98 02.

### 3.2. Errentan

- Garajea alokairuan hartuko nuke. Urkizu-Carmen inguruan. 616181118.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Goizez edo gauetz. Ziurtagiri soziosanitarioa. 633597550.
- Emakumea eskaintzen da etxe-ko edozein lanetarako, interna bezala edota orduka. Baita zerbitzari edota sukaldeko laguntzaile bezala lan egiteko ere. 643833656.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Orduka, baita asteburuetan ere. 632768653.
- Neska arduratsua eskaintzen da irailetik aurrera umeak zaintzeko eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak emateko. Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz eta umeekin lan egotea gustoko dut. 699913163.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, baita garbiketa edota etxe-ko lanetarako ere. Edozein egun eta ordutan. 642143180.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. 641834341.

- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, asteburuetan, gauetan, ospitalean edota orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko interna bezala. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 631888449.
- Neska eskaintzen da udan umeak zaintzeko edota ingelesezko klasea intentsiboak emateko (C1 titulua-rekin). 632181502.

### 4.2. Langile bila

- Jardunaldi erdiz dendan lan egiteko pertsona baten bila gabiltza. Interesa baduzu, bidali zure CVa helbide honetara: berritoki@gmail.com.
- Itzamna Akademiak ingelesezko irakaslea behar du hurrengo kurtsorako. Irailetik ekainera, jornada erdia, 1500€. Bidali CVa: info@itzamna.eus helbidera.
- Odontologo orokorra bilatzen dugu asteen jardunaldi bat edo gehiagotan lan egiteko Ermuko hortz klinika batean. Lan-giro ona eta ordutegi malgua. Bidali CV niklinika@gmail.com emailera.
- Banatzaileak behar dira ostiraletan ...eta kitto! aldizkaria banatzeko (6 ordu). 11:00-18:00 bitartean, Urte osoko kontratua. Tel. 943200918 / banaketa@etakitto.eus
- Esperientzia duen eta ikasten jarraitzeko grina duen ilea-paintzailea behar da. Bidali CVa peluqueriaaider3004@gmail.com helbidera.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

- Mendiko bizikleta elektrikoa salgai. Suspentsio bikoitzarekin eta egoera onean. 1.000€. 646293311.

ego-gain, 6

# KONTENT

943 11 86 91



RESTAURANT • KAFETEGIA  
PINTXOAK • TASKA • PUB  
Elkarrekin **Kontent** egoteko!!

## BANATZAILEAK BEHAR DIRA

..eta kitto! aldizkaria  
Eibarren banatzeko

- Ostiraletan (6 ordu)
- 11:00-18:00 bitartean
- Urte osoko kontratua

Interesa baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 20 09 18

[banaketa@etakitto.eus](mailto:banaketa@etakitto.eus)



**eta kitto!**  
euskarra elkartea

**IRAILAK 7, ASTELEHENA**

**MADDI ANE TXOPERENA**

**ANDONI EGAÑA**

**SAIOA ALKAIZA**

**AITOR MENDILUZE**

**TIRO**

**PITXON**

**21:00**

**SARRERAK SALGAI:**

- BAZKIDEENTZAT uztailaren 10etik 21era  
...eta kitto! Euskara Elkarte
- Uztailaren 23tik aurrera **Guridin, Kultun eta Tiro Pitxonen**